

Genero-identitatea testuinguruan: ikerketa enpirikoa

Garbiñe Ortiz Anzola eta Jose F. Valencia Garate
Euskal Herriko Unibertsitatea

Genero-identitatearen arloko ohiko ildoak ezaugarri femenino-espresiboekiko eta/ala maskulino-instrumentalekiko subjektuaren loturaren araberrako sailkapenetik eratorritako ezberdintasun orokorrak aztertu ohi ditu. Ikerkuntza berriagoak, aldiz, egoera batetik besterako aldakortasunean jarri du arreta. Azken bide honi jarraituz, genero-identitatearen eta testuinguruaren arteko harremanari buruzko ikerketa aurkezten dugu. 2 (testuinguru: lana-bikotea) x 2 (generokidetza: emakumezkoa-gizonezkoa) x 2 (baldintza: erreala-ideala) motako diseinu faktorial mistoa erabili zen, non azken aldagaia errepikapen-neurrikoa den. Testuinguru eta baldintza bakoitzean jendearen portaera (emakumezkoarena zein gizonezkoarena) deskribatzeko eskatu zitzaizen ikerketaren subjektuei, *Bem Sex Role Inventory* galdesortaren ezaugarrien bidez. Alde batetik, eginiko faktore-analisietan, instrumentalitate eta espresibitate-dimentsioak agertzen dira argi bereizita. Beste alde batetik, genero, testuinguru eta baldintza aldagaien arteko interakzio efektua aurkitu zen; gizonezkoek lanean instrumentalitate puntuazio altuak eta bikote-testuinguruan baxuak azaltzen zituzten baldintza errealean, kontrakoa azaltzen zelarik emakumezkoen artean. Baldintza idealean, berriz, emakumezkoek joera aldatu eta sexuen arteko patroia antzekoagoa azaltzen zen. Bukatzeko, aurkitutako emaitzen araberrako hausnarketa teorikoak zein praktikoak azaltzen dira.

Traditionally, research on gender identity has been involved in general differences derived from the subject classification related to the feminine-expressive and/or masculine-instrumental attributes. However, the study of the variability of these attributes across situations has not been largely analysed. The aim of the present study was to evaluate the relationship between gender identity and context. A 2 (context: work-couple) x 2 (gender: female-male) x 2 (condition: real-ideal) mixed factorial design was applied, treating condition as a repeated measure variable. Subjects of this investigation described people's behaviour in each of the contexts and conditions, in the base of characteristics from the *Bem Sex Role Inventory*. In the factorial analyses, we have found instrumentality and expressiveness dimensions clearly differenced. On the other hand, it was found an interaction effect between gender, context, and condition variables. While men showed high instrumental scores in the work condition and low scores in the couple condition in the real condition, the opposite case was observed in the women group. In the ideal condition, women changed this tendency, appearing a similar pattern between the sexes. Finally, theoretical and practical reflections in relation to these results are proposed.

1. Testuinguru teorikoa

Genero-identitateari buruzko teorizazioaren ohiko ildoak maskulinitateak eta feminitateak dimentsio bereko aurkako bi mutur osatzen zutela agintzen zuen, pertsona berarengan bi mota hauetako ezaugarriak batera agertu ezin zirela (Constantinople, 1973). Teoria honen arabera, gizonezkoek eta emakumezkoek portaera, interes eta nortasun ezaugarri ezberdinak garatzen zituzten. Ondorioz, maskulinitatea *ez-feminitate*-an zetzan eta feminitatea *ez-maskulinitate*-an, bi generoak bereizten zituen edozein ezaugarri sozial maskulinitatea edota feminitatea definitzeko erabili zelarik.

Kontzepzio honi eginiko kritikan kokatzen da aurreko paradigmarekin apur-tzen duen Sandra Bem-en teoria (Bem, 1974). Izan ere, Bem-ek maskulinitatearen eta feminitatearen arteko independentzia aldarrikatzen zuen, gizabanako berak ezaugarri maskulinoak zein femeninoak ager zitzakeelakoan, androginia kontzep-tua sortuz. Subjektu *maskulinoak* eta *femeninoak* –sexu tipifikatuak deritzatenak–, androginoak ez bezala, barneratutako errol sexualarekiko jokaera koherentea gordetzeko asmotan, nahikoa portaera mugatua izango lukete egoera batetik bestera; hots, autokontzeptu maskulinodunak (errol sexual maskulinoa duena) portaera femeninoak eta autokontzeptu femeninodunak (errol sexual femeninoa) portaera maskulinoak baztertuko bailituzkete. Hipotesi hauek bitarte, *Bem Sex Role Inventory* (BSRI) (Bem, 1974) maskulinitatea eta feminitatea neurtzeko asmoz sortu zen 70eko hamarkadan, ikusmolde berriaren neurketa gauzatzeko lehenengo tresna izanik.

Honela, BSRI-ki bi eskala ditu: Maskulinitate eskala eta Feminitate eskala, ba-koitzak hogeitortasun ezaugarri duenak. Berauen sortzeko, gizartean gizonez-koentzat eta emakumezkoentzat desiragarriak ziren nortasun-bereizgarriak auke-ratu ziren, sexuak tipifikatutako pertsonen portaera desiragarri estandar hauek barneratzen zituztelako ustean. Beraz, gizonezkoentzat desiragarriagoa izaten zen ezaugarria maskulinoentzat hartu zen eta emakumezkoentzat egokiagoa izaten zena femeninoentzat, ordea. Horrelaxe hautatu ziren eskalak osatzen dituzten 40 item edo ezaugarriak, sexu bakoitzari dagokion desiragarritasun berezian oinarrituta, alegia.

Maskulinitate eta Feminitate eskalez gain, BSRI-ki Desiragarritasun Sozialeko eskala ere badu, gure ikerketan erabili ez den arren. Beronek beste bi eskalei inguru neutroa ematea du helburu, bi sexuentzako desiragarritasun berdina zuten ezaugarriez osatuta, hasiera batean ezaugarri desiragarriak aukeratzeko joera kontrolatzeko balio zuela.

Gizarteak pairatu duen kultura-aurrerapena dela eta, kontestutik kanpo geratu dela pentsa baliteke ere, Bem-en prozedurak errepikatu direnean, autorearen hasierako planteamenduei jarraituta, BSRI-ren ezaugarriak oraindik onargarriak eta baliagarriak direla azaldu izan da (Vergara, 1994).

1.1. Maskulinitatea - Feminitatea vs. Instrumentalitatea - Espresibitatea eztabaida

Maskulinitatearen eta feminitatearen arteko independentziak eratorria, genero errolaren egungo kontzeptuak Parsons eta Balesen (1955) instrumentalitate-

espresibitate eredu dualistara mugatzen ditu maskulinitatea eta feminitatea. Gizonezkoek modu instrumentalean aritzeko joera handiagoa agertzen zutela eta emakumezkoek, berriz, espresiboago jokatzeko zutela ohartu ziren autore hauek. Horrela, historian zehar, maskulinitatea instrumentalitatearekin lotu izan da eta feminitatea espresibitatearekin.

Sexuen arteko diferentzia hau arau kulturaltzat hartzearen ondorioz, maskulinitateari eta feminitateari instrumentalitatearen eta espresibitatearen definizioak eman zaizkie, hurrenez hurren. Lehenengoak, instrumentalitateak hain zuzen, jomuga-norabide orokorrari loturiko kualitateak adierazten ditu. Aitzitik, espresibitateak besteekiko kezka eta pertsonen arteko harremanekiko arduraz azaltzen du. Hau guztia dela eta, Bemen galdesortak, sexu errolaren orientazioaren azterketa orokorra baino gehiago, subjektuaren kokapena zehazten du espresibitate-instrumentalitate nozio arautuan (Spence & Helmreich, 1980). Zentzu honetan, Archerrek (1989) nortasun ezaugarrien galdesortatzat jotzen du BSRI, eta McCrearyk (1990) ere, BSRIren itemetan Parsons eta Balesen (1955) instrumentalitate-espresibitate dikotomiaren erabilera nabarmentzen du, Bemen helburua maskulinitate eta feminitate orokorrak neurtzea izan arren. Izan ere, BSRIren eredu laburrak portaera espresibo eta instrumentala aztertzen duen galdesorta batekin erlazio handia duelako froga enpirikoak ere badaude (Holmbeck & Bale, 1988).

Geroagoko ikerlan batzuetan, nortasun-ezaugarri estereotipikoen eta genero errolari lotutako atributuen arteko erlazioa ere nabarmendua izan da. Adibidez, Williams eta Best (1982), Parsons eta Balesen planteamenduari jarraituz, hogeita hamar nazioko datuekin eginiko ikerketan, ondoko ondoriora heldu ziren: lanak agintzen duen zereginean, non gizonezkoek presentzia handiagoa izan duten, errendimendu onerako garrantzitsuago hautematen dira kualitate instrumentalak, gauza bera gertatzen delarik ezaugarri espresiboekin familia-errolerako. Ondoren aipatuko ditugun ikerketak kontzeptu hauetaz baliatzen dira, beraien baliagarritasuna bermatuz.

1.1. Genero-identitatea eta testuingurua

Ikerkuntza-arlo honetan ahaztuta gelditu den beste arazo batera hurbildu nahi izan dugu lan honen bidez. Teorialariek zein ikertzaileek genero errolaren ezaugarriak egonkor eta aldaezinezkotzat jo izan dituzte, testuinguruaren eskakizun mugikorren arabera trukatzekoak eta dinamikoak izateko posibilitateari uko eginez. Hala ere, gizabanakoek testuinguru ezberdinetan ezaugarri ezberdinak ager ditzaketela egiaztatu da hainbat lanetan (Bem, 1975; Orlofsky, 1981).

Bemek berak (1974), androginiaren planteamendua egiterakoan, egoera-egokitasunaren araberrako portaera-aldakortasuna defendatzen zuen. Arestian aipatu dugun bezala, maskulino eta femeninoak, baieztatzaila eta atseginkorrak, instrumental eta espresiboak izan daitezke pertsona androginoak, Bemen ustez.

Izan ere, errol sozial zehatzak ezarritakoan ematen diren autodeskribapenak eta generoaren nortasun-ezaugarri garrantzitsuen deskribapen orokorrak ezberdinak dira askotan (Daley & Rosenzweig, 1988; Rosenzweig & Daley, 1991). Esaterako, Uleman eta Westonek (1986) zera aurkitzen dute lan batean: gurasoak diren aldetik galdetzen zaienean, amek espresiboago eta instrumentalagozat

jotzen dute beren burua eta aitek instrumentalitate gutxiago azaltzen dute, autodeskribapen orokorrean baino. Antzeko moduan, ikasle-errola goraiatzan denean, instrumentalitatea zein espresibitatea txikitzen da ikasleen artean, bikotekide errolean espresibitatea igotzen duten bitartean.

Beraz, generoari lotutako auzietan, egoeraren menpeko diferentziak aztertzen dituen ikusmira egoeraren arabera aldea kontutan hartzen ez duena baino probetxugarriagoa eta errealistagoa suertatzen da (Archer, 1989), genero errolaren ezaugarriak pertsona-egoera interakzioan definitzen baitira.

Genero-identitateaz teorizazioan ez ezik, beste arlo batzuetan ere frogatu izan da errol sozialak pertsonaren baliabideak baldintzatzen dituela, emakumezkoek eta gizonezkoek espresibitate eta instrumentalitatearen aldetik sozializazio-prozesu ezberdinak izan dituztela onartzen den arren. Adibidez, estresa hautemateko eta beroni aurre egiteko erak direla eta, sexu arteko ezberdintasunak desagertzen dira egoera zehatzak jartzen direnean abiapuntu (Rosario, Shinn, Morch & Huckabee, 1988; Sigmon, Stanton & Snyder, 1995). Gainera, errol antzekoak dituztenean, emakumezkoek zein gizonezkoek arazoari zuzenki eusten dioten estrategiak –instrumentaltzat jotzen direnak– erabiltzen dituzte, nahiz eta emozioari lotuta dauden estrategien forma batzuetan diferentziak agertzen diren.

Badirudi errol sozial hauek sortzen dituzten portaera-itxaropenak ez datozela bat genero errolaren aginduekin, eta honek guztiak dakarrela autodeskribatzerakoan errol sozial ezberdinekin batera agertzen den bariabilitatea (Lawrence, Taylor & Byers, 1996). Hala ere, bateraezintasun hau noiz gertatzen den ez dago hain garbi. Adibidez, bikotekide errolean espero daitekeen portaerari buruz, bi teoria kontrajarri aurki daiteke. Sexu-egoeretan, portaerak genero itxaropen orokorreari jarraituko diela dio bata; tradizionalki, gizonezkoak portaera aktibo eta zuzena hartzeko sozializatuak izan dira eta emakumezkoak, berriz, errol pasiboa eta maitasunari lotutako portaera azaltzeko (Byers, 1996; Zilbergeld, 1992). Hau dela eta, bikotekidearekin portaera estereotipikoa ez azaltzeak ondorio sozial txarrik ekar lezake (Leary & Snell, 1988). Beraz, egun emakumezkoen eta gizonezkoen sexu-portaerak antzekoagoak badira ere, oraindik diferentzia nabarmenak daude lehenengo teoria honen arabera. Aitzitik, bigarren teoriak oso ikuspuntu ezberdina agertzen du. Honetan, emakumezkoek zein gizonezkoek sexu-portaera aktiboak nahiz goxoak agertzea espero da (Farber, 1992; Macklin, 1983; Roche, 1986); beraz, sexu-egoeretan portaera-mota asko sexu batentzat nahiz bestearentzat egokiak eta onargarriak direla defendatzen da. Ondorioz, bigarren teoria honek dioenez, sexu-egoeretan portaera ez da orokorrean bezain estereotipatua.

Ildo beretik, Daley eta Rosenzweigen (1988) ikerketa batean, unibertsitateko gizonezko langile ezkonduak sexu-egoeretan instrumentalitate txikiagoz eta espresibitate handiagoz agertzen dira, lanean, orokorrean eta egoera sozialetan baino. Emakumezko ezkonduak sexu-egoeretan zein egoera sozialetan lanean baino espresiboago jokatzen dute, ordea, genero errol tradizionalaren itxaropenei garbiago erantzunez.

Lawrence, Taylor eta Byersek (1996) testuingurua zehazteak dakarren portaera-aldakortasunean sakontzeko ikerketa proposatzen dute. Honetan, BSRIren bidez gizonezko eta emakumezko ikasleen autodeskribapen orokorrak eta sexualak

erkatzen dituzte, baita sexu-egoeran gizonezkoek eta emakumezkoek izan behar dituzten ezaugarri idealak ere. Aurkitutakoaren arabera, gizonezkoen espresibitate-puntuazioak deskribapen orokorrean baxuenak dira eta sexu-egoera idealean altuenak; emakumezkoenak ere idealean altuagoak dira, orokorrean eta sexu-egoeran baino. Instrumentalitatean antzekotasun handiagoa dago: bai gizonezkoek bai emakumezkoek orokorrean instrumentalitate handiena agertzen dute eta sexu-egoeran baxuena. Beraz, espresibitatean eta instrumentalitatean gizon eta emakume idealen arteko diferentziarik ez dagoela baieztatzen dute autoreek. Hala ere, hiru baldintzetan (orokorrean, sexu-egoeran eta sexu-idealean) gizonezkoen instrumentalitate-puntuazioak emakumezkoenak baino altuagoak dira eta, alderantziz, emakumezkoen espresibitate-puntuazioak gizonezkoenak baino altuagoak orokorrean eta sexu-egoeretan, molde tradizionaleraino jarraituz, sexu-egoera idealean gertatzen ez den bezala. Izan ere, gizonezkoen ustez, gizonarentzako sexu-ezaugarri idealek normalean azaltzen dituztenak baino espresiboagoak izan beharko lukete eta harreman-mota honetan izaten duten portaera orokorrean baino espresiboagoa ere bada,aldi berean instrumentalitatea jaisten dutela. Horrela, gizonezkoek genero-estereotipia murrizten dute sexu-egoeran aritzean, gizonezkoarentzat idealtzat jotzen baitute portaera espresiboago hau sexu-egoeran. Emakumezkoek ere, orokorrean eta sexu-egoeran portaera antzekoa eta nahikoa tradizionala azaltzen duten arren, ez diote portaera honi ideal irizten, idealean instrumentalagoak eta espresiboagoak ere izan nahiko lukete, gizonezkoek bezala. Datu hauek guztiak –Rosenzweig eta Daley (1991) ere egiaztatuak– kontuan hartuta, autoreen ustez, generoaren errol tradizionalak jarraitzen du gidatzen gizonezkoen eta emakumezkoen portaera, nahiz eta beren sexu-portaeran hurbiltze bat egon eta sexu-idealari buruzko kontzepzioetan parekotasuna, aldea baino gehiago, nabarmentzen den.

Puntu honetara helduta, identitateak egoeren araberrako aldaketa pairatzen duela esan daiteke, testuinguruaren zeresanean sakontzeko beharra ikusten bada ere. Berau helburu, proposatutako bi testuinguruetan –lanean eta bikotean– ezberdintasunak agertzea espero dugu, espresibitate eta instrumentalitate-ezaugarrietan islatuta. Lanean instrumentalitatea areagotuko da; bikote-kontestuan espresibitatea, ordea, bai gizonezkoek bai emakumezkoek era honetan jokatuko dutelakoan. Gainera, egoera idealean kokatuta, testuinguru arteko aldea handitzea ere espero dugu.

2. Metodologia

Lagina: 102 subjektuz osatuta zegoen (% 49 emakumezko eta % 51 gizonezko), 25 eta 50 urte bitarteko adinekoak.

Diseinua: 2 (generokidetza: gizonezkoa-emakumezkoa) x 2 (testuinguru: lana-bikotea) x 2 (baldintza: erreala-ideala) motako disenu faktorial mistoa erabili zen, azkena subjektu-barneko aldagai bezala landu zelarik.

Materiala: Bem Sex Role Inventory (BSRI) (Bem, 1974) galdesorta erabili zen, guztira maskulinitate eta feminitate jatorrizko eskalei dagozkien 40 itemek eratua, desiragarritasun sozialaren itemak (neutroak) ez baitziren aurkeztu.

Prozedura: subjektuei lanean edo bikote harremanetan (testuinguru manipulaketa) jendearen portaerari buruzko ikerketa burutzen ari zela esaten zitzaien. Galdesortaren lehenengo zatian, emaniko ezaugarrien (20 instrumental eta 20 espresibo) araberako portaera maiztasuna zehazteko galdetzen zen aurkeztutako egoeran (lana edo bikotea) –dimentsio erreala–. Bigarren atalean, lan errendimendurako eta moldatzerako portaera lagungarriak zein desegokiak daudela nabarmentzen zen lanaren kasuan; bikote harremanei buruzko galdesortetan, berriz, harremanak okertu eta gatazkak sortzen dituzten portaerak nahiz harremanei laguntzen dietenak daudela azaltzen zen. Sarrera honen ostean, ondoko galdera hau erantzuteko eskatzen zen: portaerak zein neurritan jarraitu beharko liekeen aurkeztutako era ezberdinei (lehenengo ataleko ezaugarri berberak: 20 instrumental eta 20 espresibo), arrakasta eta moldaera ona lortzeko lanean edo bikote harremana positiboa izateko –dimentsio ideala–. Bi ataletan, 5 puntuko Likert eskala zen erantzun neurria (1 = inoiz ez; 5 = beti).

3. Emaitzak

BSRIren instrumentalitate/espresibitate versus maskulinitate/feminitate dimentsioei buruzko eztabaidan sakontzeko asmoz, lehenengo bi faktore analisi (Varimax delako errotazioaz) egin genuen, baldintza errealearen itemekin zein baldintza idealarenekin (ikus 1. taula). Baldintza errealearen itemei dagokienez, eta bi faktore eskatuta –Catellen (1966) *scree test*-ak iradoki zuen bi faktore erabilitea–, faktore bakoitzean itemek izan zituzten aportazioak azaltzen dira 1 taulan, orokorrean bariantzaren % 23a azalduz. Baldintza idealean, eta baldintza errealekiko prozedura bera erabiliz, lortu izan ziren bi faktoreek bariantzaren % 26a azaltzen zuten. Analisisotan, .40tik gorako ekarpena zuten itemak hartu genituen faktoreak definitzeko.

Ondorioz, azterketa sakona eginda, instrumentalitateaz eta espresibitateaz hitz egin dezakegu, instrumentalitate itemek saturatzen baitituzte baldintza errealearen lehenengo faktorea eta idealaren bigarrena eta espresibitate itemek baldintza errealearen bigarren faktorea eta idealaren lehenengoa.

Gure emaitza hauek Ballard-Reisch eta Eltonenekin (1992) bat datoz. Aipatutako autoreek hamahiruna item izendatzen dute espresibitate eta instrumentalitate faktoreen osagarri. Batetik, amoltsua, sinpatikoa, besteen beharrekiko adi, ulerkorra, gupidatsua, besteen sentimenduak lasaitzeko nahia, sentibera, goxoa, lagungarria, adeitsua, egiazalea, zintzoa, eta lagunkoia, espresibitatearen adierazgarriak dira, zeinetatik gure analisisian 9 agertzen den baldintza errealean eta 7 idealean. Hala ere, aipatu beharrekia da espresibitatean BSRIren jatorrizko eskala neutroaren 4 item (adeitsua, egiazalea, zintzoa, lagunkoia) sartzen dutela autore hauek, guk eskala neutrorik erabili ez dugun bitartean. Beraz, azken hauek kenduta, gainontzeko 9 itemekin egin dugu erkapena. Honela, baldintza errealean, Ballard-Reisch eta Eltonek (1992) proposatutakoak baino aldagai bat gehiago (umezalea) aurkitu dugu; idealean, berriz, autore hauen zerrendatik 2 kanpoan geratu dira (sinpatikoa, gupidatsua) eta 5 berri sartu (erasokorra, autokonfidantza, leiala, mintzo leuna, umezalea). Bestetik, instrumentalitatean hauexek ezartzen dituzte: independientea, baiezkorra, nortasun sendoa, boteretsua, lider abileziak, arriskuzalea, buruaskia, dominatzailea, posizioa lortzeko nahia, erasokorra, lider

jokaera, indibidualista eta lehiakorra; hauetatik 8 baldintza errealean eta 4 baldintza idealean aurkitu dugu. Beraz, faktore honetan, 3 item (independientea, baiezkorra, indibidualista) kanpoan utzi eta beste 3 (handinahia, erabakiak hartzeko erraztasuna, norberaren ideien aldeko borrokalaria) item berri bezala sartu ditugu baldintza errealean. Baldintza idealean 4 item (nortasun sendoa, autosufizientzia, posizioa lortzeko nahia, lehiakorra) errepikatzen dira eta beste 4 berri (handinahia, erabakiak hartzeko erraztasuna, norberaren ideien aldeko borrokalaria, atletikoa) aurkitu, azken hauetarik 3 errealean ere agertzen zirelarik.

Beraz, aurreko emaitzekiko adostasuna lortu dugularik gehiengoan, BSRIren bidez instrumentalitate eta espresibitate ezaugarrietan oinarrituriko deskribapena lor daitekeela baieztatzen gaude.

Gainera, *Alpha* estadistikoan sartu genituen 4 item sailek fidagarritasun indize onak aurkeztu zituzten, alfak .82 eta .76 zirela baldintza errealearen lehenengo eta bigarren faktoreetan, eta .83 eta .77 baldintza idealarenetan.

Proposatutako hipotesiak –testuinguru bakoitzean ezaugarri instrumentalak eta espresiboak era ezberdinean azalduko zirela, emakumezkoen zein gizonezkoen jokaeran ikus zitekeena, eta baldintza idealean testuinguruaren arteko diferentzia areagotuko zela– frogatzeko asmotan, aldagai anitzeko bariantza analisi mistoa gauzatu genuen. Testuingurua (1 = lana; 2 = bikotea) eta generokidetza (1 = gizonezkoa; 2 = emakumezkoa) subjektu-arteko aldagaitzat hartu genituen; baldintza, erreala versus ideala, subjektu-barneko aldagai bezala landu genuen, ordea. Gainera, lortutako bi faktoreak –instrumentalitate eta espresibitate dimentsioak– argi agertzen zirela, eredu estatistikoan bi menpeko aldagai bereizi bezala sartu ziren. Emaitzak 2. taulan ikus daitezke.

Aldagai anitzeko bariantza analisiaren bitartez, hiru aldagaiaren arteko (generoa, testuingurua, baldintza) bigarren mailako interakzio efektu esanguratsua aurkitu genuen (Pillaisen traza = 0.13; a.g. = 71; F = 3.83; p < 0.05). Gainera, testuingurua x baldintza interakzio efektua ere topatu genuen (Pillaisen traza = 0.13; a.g. = 71; F = 9.31; p < 0.05). Jarraian, interakzio efektu orokorren emaitzak azalduko ditugu lehenengoz.

Baldintza errealarari dagokionez, gizonezkoek instrumentalitate puntuazio altuak dituzte lanean eta baxuak bikotean; espresibitatean, berriz, lan baldintzan puntuaketa baxuak eta bikotean altuagoak lortzen dituzte. Emakumezkoek, ordea, patroi ezberdina azaltzen dute. Bai instrumentalitatean bai espresibitatean, baxu puntuatzen dute lanean eta altuago bikotean, lan errolaren eta bikotekide errolaren instrumentalitatea puntuaziorik txikiena eta altuena izanik, hurrenez hurren.

Baldintza idealean, gizonezkoek baldintza errealearen patriaren antzekoa agertzen dute –instrumentalitate puntuazio altuak lanean eta baxuak bikotean, eta espresibitate puntuazio baxuak lanean eta altuagoak bikotean–, puntuaketak polarizatuagoak izan arren. Aitzitik, emakumezkoek baldintza errealearen patroia aldatu egiten dute. Hain zuzen ere, instrumentalitate puntuazioak lanean igo eta bikotean jaitsi egiten dituzte; espresibitatean, etxean altuago eta lanean baxuago puntuatzen dutelarik.

Interakzio efektu orokorra izanik ikerketa honen helburu nagusia, ildo honi jarraitu nahi izan diogu datuak lantzean eta atal honetan finkatu gara, ondoren azalduko dugunez. Honela, testuingurua x baldintza interakzio efektuak patroiz ezberdinak suposatzen zituen emakumezko eta gizonezko taldeetan, bariantza analisisiek agertarazi zuten. Testuinguru manipulaketak diferentzia esanguratsuak agertu zituen gizonezkoengan bai baldintza errealeko instrumentalitatean (Pillaisena traza = 0.13; a.g. = 74; F = 4.46; p < 0.05) bai baldintza idealeko instrumentalitatean (Pillaisena traza = 0.13; a.g. = 74; F = 5.68; p = 0.01), baita baldintza idealeko espresibitatean ere (Pillaisena traza = 0.13; a.g. = 74; F = 13.25; p = 0.01). Emakumezkoen artean, aldiz, ez zen halako efektu esanguratsurik aurkitu. Gainera, orokorrean, gizonezkoen instrumentalitate eta espresibitatearen arteko diferentziak aurkitu genituen bikote eta lan kontestuetan, baldintza errealean lan kontestuan (t = 1.92; p < 0.05), baina ez bikote kontestuan (t = -.95; p > 0.05), eta baldintza idealean, lan kontestuan (t = 4.82; p < 0.05) nahiz bikote kontestuan (t = 2.5; p < 0.05). Emakumezkoen kasuan, desberdintasun hauek baldintza idealaren lan kontestuan soilik (t = 1.96; p < 0.05) agertzen ziren.

4.Eztabaida eta ondorioak

Aztertu dugun lehenengo aferari dagokionez, instrumentalitate eta espresibitate kontzeptuen erabilera nabarmendu nahi izan dugu, maskulinitate eta feminitatearen ordeztu, terminologiaren zehaztasun eza eta hitzek beraiek dakarten konnotazio estereotipikoa baztertzeko saiatzean.

Bestetik, identitatea definitzerakoan testuinguruaren eragina aztertzea helburu, gai korapilatsu bezain garrantzitsu baten aurrean kokatu gara. Beronen efektua hainbat arazok baldintzatuta agertu zaigu.

Batetik, testuinguruaren eragin bereizgarriaz hitz egin daiteke, esanguratasuna mugikorra bada ere. Hots, lanean eta bikotekidearekin ematen den erantzuna ez da berdina –batzuetan kontestu batetik besterako aldea estatistikoki nahikoa ez den arren–, ezta instrumentalitate eta espresibitate ezaugarrien kokapena espero izandakoa ere. Bestetik, emakumezkoen eta gizonezkoen patroien arteko ezberdintasunaz ohartu ahal izan gara.

A priori, testuinguruaren eraginari buruzko hipotesia kolokan jartzen dela iduri arren, itxurako isla honen sorrera bestelakoa izan liteke. Alegia, jakintzat eman dugu testuinguru bakoitzak portaera itxaropen ezberdinak sortzen dituela errol aldardotasunarekin bat eginez (Daley & Rosezweig, 1988; Lawrence, Taylor & Byers, 1996; McCreary, 1990; Rosenzweig & Daley, 1991), ondoko zentzu honetan: lan kontestuan, non helmuga lortzeko norabideari ematen zaion lehentasuna, ezaugarri instrumentalak izango lirateke nagusi; bikotekide errolak, pertsona arteko harremanetan oinarriturik, espresibitatea areagotzea eskatuko luke (Daley & Rosezweig, 1988; Lawrence, Taylor & Byers, 1996; Uleman & Weston, 1986; Williams & Best, 1982). Halere, gaurko inguruarekiko harremanetan, ohiko genero errolaren aginduen eragina ere aipatu da hainbat lanetan (Daley & Rosezweig, 1988; Lawrence, Taylor & Byers, 1996; Rosenzweig & Daley, 1991); honek lehenxego azalduko testuinguruaren eragina baldintza lezake, genero-identitatearen definizioan duen interferentzia honen funtzionamendua argi ez badago ere. Harre-

man hauek azertu beharko genituzkelakoan, aurrerantzean itzuliko gara honen ingurura, gure datuetan adierazten dena abiapuntu hartuta.

Emaitzetan nabarmendu ahal izan dugunez, eta baldintza errealean kokatuta, gizonezkoen kasuan, testuinguru bereizketa argiagoa egiten da: lanean instrumentalitate areagotzen dute, bikote kontestuan ez bezala. Emakumezkoen artean, aldiz, ez da kontestuen araberrako berizketa esanguratsurik egiten, instrumentalitate eta espresibitate dimentsioetan. Are gehiago, deskriptiboki bada ere, lanean baxu puntuatzen dute bietan eta eremu pribatuan altuago.

Hipotetizatutakoaren artean, efektua gizonezkoen aldetik, lan testuinguruan eta instrumentalitateari dagokionean soilik aurkitu izana mamitsua gerta daiteke. Izan ere, lanean izaten den portaera deskribatzean, instrumentalitateak omen duen garrantzi hau genero-estereotipia arloko ikerkuntza adar baten iradokizunekin bat dator. Instrumentalitate ezaugarriak laneko arrakastarako oso beharrezkotzat jo izan dira ikerlan kopuru nahikotan (ikus Eagly & Mladinic, 1994), zeinek emakumezkoekiko aurreritzia/prejuizioa areagotzen duen, genero errolak espresibitate edo komunalitate ezaugarriak, eta ez instrumentalak, egozten baitizkie emakumezkoek. Beraz, hausnarketa honetatik, lan kontestuan emakumezkoak egoera zailean daudela pentsa liteke, errol itxaropenetatik aldentzea zigortuta egoten baita (Eagly & Mladinic, 1994), eta honek dakarren gatazkak isla izan behar duela emakumezkoen moldatze saiakeran.

Ez da ahaztu behar emakumeak lan merkatuan tokia bilatze prozesuaren hastapenetan daudela, gaur eguneko gizartean. Arlo honetan emakumearen sarbideaz, integrazio neurriez eta berdintasunaren aldeko apostuaz mintzatu izan bada askotan, jakina da errealtatea bestelakoa dela oraindik ere, ezin izan dela gizonaren estatusa eskuratu. Honen aztarna ugari da egunerokotasunean: botere lanpostuen kopurua emakumeen eskutan, soldata diferentziak, sarbide aukerak... Honek guztiak, jada, ezberdintasunaren berri ematen digu, jarduteari buruzko ustezko desberdintasunak ere egoteari atea zabaltzen diola, eta, beraz, genero errolaren zeresanean pentsa daitekeela. Nolabait, emakumeak gizartean bete izan duen papera, esparru pribatuaren (etxea, familia) jabe eta morroi aldi berean, ezin baztertu eta lan merkatuan sartzen hasi denean, errol ezberdinen arteko gatazka sortu da. Zintzokeria mantenduz, emakumeak izaki *adeitsu / lagunkoi* hura jarraitzen du izaten *-nagusiaren* aurrean ere bai-, holako espektatibei erantzutera behartuta ikusten duela bere burua eta ondorio txarrik ere espero lezakeela bete ezean, lehen aipatu den bezala (are gehiago gehienetan botere lanpostuak gizonezkoen eskutan daudela kontutan hartuta).

Inguruak emakumeek bidaltzen dien mezu nahasiak *-batetik*, lanari dagokion helmuga lortzea eta, bestetik, errealtateak gaineratzen diona bere ohiko errolari eutsiz- portaera egokiarekiko sortzen duen ezjakin honen isla izan daiteke gure emaitzetan aurkitu duguna, anibalentziaren ondorioa. Lanean ez dute azaltzen ez instrumentalitate ezaugarriak ez espresibitateak, Uleman eta Westonen (1986) ikerketan gertatzen zen bezala ikasle taldean. Hau guztia botere erlazioen ikuspuntutik ere azter liteke, botere handiagoko taldeen aurrean desabantailan daudenen portaera ereduari erantzun baliiezaioko aurkitutako definizio ezak.

Proposatutako azalpen honetan finkatuta –gure datuek indar handiagoa behar balukete ere testuinguru ezberdinetara zabaldu ahal izateko–, lan kontestuan behintzat, genero errol tradizionalaren arrastorik gelditzen omen da errolen eremura eramanda, portaera itxaropenek ohiko errolei erantzuten dieten heinean, eta, beti ere, egiturazko ezberdintasun sozialek lagunduta. Alegia, genero-identitatearen patroiz zaharrak portaeran islatzen jarraitzerik dago, emakumeari eta gizonari testuinguru gaisetiko eskakizunak egiten baldin bazaizkie. Honela, eta desiragarritasun sozialean finkaturik, emakumeari, berea izan ez den lekuan –lan merkatuan, alegia–, berez omen ez dituen ezaugarriak (instrumentalak) azaltzea galerazten zaio, gizonari errazago suertatzen zaiolarik ohiko molde honetan aritzea.

Esparru pribatuan, aldiz, ez dugu diferentziarik topatu. Honek espero izanda-koari –espresibitate ezaugarriak nagusi agertzea instrumentalitatearekin alderatuz– erantzuten ez dion arren, datuek, deskriptiboki hartuta, nolabaiteko joera adierazten dute. Emakumezkoek instrumentalitatean zein espresibitatean altuago puntuatzen dute egoera honetan, Uleman eta Westonen (1986) emaitzen antzera, non emakumezkoek espresiboago zein instrumentalago jokatzeko zuten ama errolean. Gizonezkoek ere, esparru honetan instrumentalitatea murriztu eta espresibitatea areagotzen dute. Eredu hau ikusita, bikotekide errola gatazkatik kanpo dagoela suposa genezake eta horregatik bereizteko aukera gutxitzen dela hipotetizatu. Hala ere, afera honen inguruan baieztapenak egin ahal izateko, sakontzeko beharra nabaria da, somatutako joera hau konfirmatzeko ala ukatzeko datu erabakiorragoen bila.

Ikusmira ideal batetik, arestikoa areagotu egiten da errealekin alderatuz, gure hipotesietarako oinarri handiagoa lortzen delarik. Gizonezkoek instrumentalitate puntuazioa lanean igo eta bikotean jaitsi eta espresibitatea lanean jaitsi eta bikotean igotzen dute, dimentsio errealean azaltzen zen joera esanguratsua egite-rainoko aldea gertatuz. Dimentsio honetan, emakumeek patroiz antzekoagoa azaltzen dute: lanean instrumentalitatea, eta ez espresibitatea, azaltzearen alde agertzen dira, bikote testuinguruan espresibitatea areagotzeko joera besterik ez den bitartean. Beraz, egoera errealean gatazkatsua izan zitekeen testuinguruan, lanean alegia, aldaketa dago emakumezkoen aldetik, lehenengo egoeran azaldutako portaerari ez diotela ideala irizten nabarmentzen duena. Bikotekide testuinguruan, gizonezkoek hipotetizatutakoarekin bat egiten dute, kontestu honetan espresibitate ezaugarriak azaltzeari ideal baiteritzote; esan bezala, emakumezkoek ez, ordea. Esparru pribatu honetan zer gertatzen den argitzeko, datu gehiago bildu beharko lirakeke, kontestu honek emakumezko eta gizonezkoengan eragin mota ezberdina suposa lezakeen edota instrumentalitate eta espresibitate ezaugarriak agertzeko eskaera moldagarria agintzen duen aztertzeke.

Beraz, testuinguruarekin batera jokuan dagoen somatutako hainbat faktoreren amankomuneko eragina –gizarte baldintzak, botere harremanak edo genero errolekiko espektatibak, esaterako– aztertzeke bidea zabalik geratzen da, egoera idealean ikusten den joerarako hurbilketa nola gauza daitekeen argitzen lagundu behar lukeena.

BALDINTZA ERREALA		BALDINTZA IDEALA	
Item zbk.	Azaldutako bariantzaren %	Item zbk.	Azaldutako bariantzaren %
1. FAKTOREA: Instrumentalitatea (% 12)		1. FAKTOREA: Espresibitatea (% 16)	
17: <i>Lider abileziak</i>	.76049	24: <i>Besteen sentimenduak lasaitzeko nahia</i>	.78931
33: <i>Lider jokaera</i>	.66421	28: <i>Sentibera</i>	.77387
13: <i>Boteretsua</i>	.61706	18: <i>Besteen beharrekiko adi</i>	.74562
25: <i>Dominatzailea</i>	.59672	30: <i>Goxoa</i>	.74458
39: <i>Handinahia</i>	.59342	20: <i>Ulerkorra</i>	.68963
19: <i>Arriskuzalea</i>	.59184	31: <i>Erasokorra</i>	-.67817
31: <i>Erasokorra</i>	.56981	8: <i>Amoltsua</i>	.64438
21: <i>Erabakiak hartzeko erraztasuna</i>	.53206	38: <i>Umezalea</i>	.58444
29: <i>Posizioa lortzeko nahia</i>	.48547	40: <i>Lagungarria</i>	.53761
11: <i>Nortasun sendoa</i>	.46117	1: <i>Autokonfiantza</i>	.51615
3: <i>Norberaren ideien aldeko borrokalaria</i>	.44895	12: <i>Leiala</i>	.46504
		26: <i>Mintzo leuna</i>	.45143
2. FAKTOREA: Espresibitatea (% 11)		2. FAKTOREA: Instrumentalitatea (% 10)	
28: <i>Sentibera</i>	.69074	37: <i>Lehiakorra</i>	.69398
20: <i>Ulerkorra</i>	.61978	29: <i>Posizioa lortzeko nahia</i>	.60950
22: <i>Gupidatsua</i>	.60737	7: <i>Atletikoa</i>	.55391
8: <i>Amoltsua</i>	.58258	39: <i>Handinahia</i>	.52975
16: <i>Sinpatikoa</i>	.54748	21: <i>Erabakiak hartzeko erraztasuna</i>	.51107
30: <i>Goxoa</i>	.53707	11: <i>Nortasun sendoa</i>	.50368
24: <i>Besteen sentimenduak lasaitzeko nahia</i>	.52225	23: <i>Autosufizientzia</i>	.48426
40: <i>Lagungarria</i>	.47878	3: <i>Norberaren ideien aldeko borrokalaria</i>	.40685
18: <i>Besteen beharrekiko adi</i>	.47683		
38: <i>Umezalea</i>	.46961		

1. TAULA: BSRIren itemekiko faktore analisia, non faktoreek bariantzaren %23a azaltzen duten baldintza errealean eta bariantzaren %26a baldintza idealean.

	SEXUA	GIZONEZKOA		EMAKUMEZKOA				
	TESTUINGURUA	LANA	BIKOTEA	LANA	BIKOTEA			
ERREALA	Instrumentalitatea	.47	↔	-.17	↔	-.24	.11	
	Espresibitatea	↕	↕	.09	↕	-.17	.07	
IDEALA	Instrumentalitatea	.59	↔	-.45	↔	.22	↕	-.06
	Espresibitatea	↕	↕	.18	↕	-.31	↕	.09

2. TAULA: Testuinguru (lana-bikotea), sexu (gizonezkoa-emakumezkoa), eta baldintza (erreal-ideala) aldagai aske bezala hartuz, subjektuek instrumentalitate eta espresibitate aldagaietan ekoizturiko batazbestekoak. Geziek puntuaketen arteko diferentzia esanguratsuak ($p < 0,05$) adierazten dituzte.

Bibliografia

- Archer, J., (1989): "The relationship between gender-role measures: A review", *British Journal of Social Psychology*, 28 (2), 173-184.
- Ballard-Reisch, D. & Elton, M., (1992): "Gender orientation and the Bem Sex Role Inventory: A psychological construct revisited", *Sex Roles*, 27, 291-306.
- Bem, S.L., (1974): "The measurement of psychological androgyny", *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, 42 (2), 155-162.
- , (1975): "Sex role adaptability: One consequence of psychological androgyny", *Journal of Personality and Social Psychology*, 31, 634-643.
- Byers, E.S., (1996): "How well does the traditional sexual script explain sexual coercion? Review of a program of research", *Journal of Psychology and Human Sexuality*, 8, 7-25.
- Cattell, R.B., (1966): "The screetest for the number of factors", *Multivariate Behavioural Research*, 1, 245-276.
- Constantinople, A., (1973): "Masculinity-femininity: an exception to the famous dictum?", *Psychological Bulletin*, 80, 389-407.
- Daley, D. & Rosenzweig, J., (1988): "Variations in men's psychological sex-role self-perceptions as a function of work, social and sexual life roles", *Journal of Sex and Marital Therapy*, 14, 225-240.
- Eagly, A.H. & Mladinic, A., (1994): "Are people prejudiced against women? Some answers from research on attitudes, gender, stereotypes, and judgments on competence", *European Journal of Social Psychology*, 5, 1-35.
- Farber, N., (1992): "Sexual standars and activity: Adolescents' perceptions", *Child and Adolescent Social Work*, 9, 35-76.
- Holmbeck, G.N. & Bale, P. (1988): "Relations between instrumental and expressive personality characteristics and behaviors: A test of Spence & Helmreich's theory", *Journal of Research in Personality*, 22, 37-59.
- Lawrence, K., Taylor, D. & Byers, E.S. (1996): "Differences in men's and women's global, sexual, and ideal-sexual expressiveness and instrumentality", *Sex Roles*, 34 (5/6), 37-357.
- Leary, M. & Snell, W. (1988): "The relationship of instrumentality and expressiveness to sexual behavior in males and females", *Sex Roles*, 18, 509-522.
- Macklin, E. (1983): "Effect of changing sex roles on the intimate relationships of men and women", *Marriage and Family Review*, 6, 97-113.
- McCreary, D.R. (1990): "Multidimensionality and the measurement of gender role attributes: A comment on Archer", *British Journal of Social Psychology*, 29 (3), 265-272.
- Orlofsky, J. (1981): "Relationship between sex role actitudes and personality traits and the Sex Role Behavior Scale- 1: A new measure of masculine and feminine role behaviors and interests", *Journal of Personality and Social Psychology*, 40, 927-940.
- Parsons, T. & Bales, R.E. (1955): *Family, Socialization, and Interaction Process*, Free Press, Glenoe, IL.
- Roche, J.P. (1986): "Premarital sex: Attitudes and behaviors by dating stage", *Adolescence*, 21, 107-121.
- Rosario, M., Shinn, M., Morch, H. & Huckabee, C.B. (1988): "Gender differences in coping and social supports: Testing socialization and role constraint theories", *Journal of Community Psychology*, 16, 55-69.
- Rosenzweig, J. & Daley, D. (1991): "Women's sex roles in their public and private lives", *Journal of Sex Education and Therapy*, 17, 75-85.
- Sigmon, S.T., Stanton, A.L. & Snyder, C.R. (1995): "Gender differences in coping: a further test of socialization and role constraint theories", *Sex Roles*, 33 (9/10), 565-588.

- Spence, J.T. & Helmreich, R.L. (1980): "Masculine instrumentality and feminine expressiveness: Their relationship with sex role attitudes and behaviors", *Psychology of Women Quarterly*, 5, 147-163.
- Uleman, J.S. & Weston, M. (1986): "Does the BSRI inventory sex roles?", *Sex Roles*, 15, 43-62.
- Vergara, A.I. (1994): *Sexo e identidad de género: diferencias en el conocimiento social de las emociones y el modo de compartirlas*. Doktoradutza tesia. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Williams, J.E. & Best, D.L. (1982): *Measuring Sex-Stereotypes: A Thirty-Nation Study*, Sage, Beverly Hills, C.A.
- Zilbergeld, B. (1992): *The new male sexuality*, Bantam, Toronto.